

Laguntza gutunak



Gizarte eta
osasun zerbitzuak

Laguntza gutunak

Laguntza gutunen proiektua konfinamendu garaian sortu zen, 2020ko martxoan, osasun krisiaren ondorioz eta Irungo Udaleko Gizarte Ongizateko areako adinekoentzako zerbitzuaren eta Itziar Sistiaga idazle eta idazkuntzako irakasle irundarraren arteko lankidetzari esker.

2020ko martxoaren 14tik, osasun krisia dela eta, egoera berri batean bizitzen ikasi behar izan dugu gure osasuna babesteko. Kasu askotan, egoera horrek maite ditugunengandik banandu gaitu, eta hobeto eta egonkor sentiarazten gaituzten errutinak eta jarduerak baztertu behar izan ditugu.

Pertsona asko hauskor sentitu zen, triste, beldurtuta eta noraezean. Adineko pertsonetikiko harremanei eta loturari eusteko asmoari helduta, laguntasuna emateko modu asko daudela konturatu ginen, eta laguntza gutunen proiektua izan zen horietako bat.

Herritarrei, orokorrean, eta bereziki adinekoen zuzendutako gutunen bidez, kontakizunak eta istorioak partekatzeko eta urrutitik laguntzeko gogoaz zuten adin askotako idazle boluntarioak bildu zituen Itziar Sistiagak.

Benetako edo asmatutako istorio horiek elkar ezagutzen ez duten pertsonak lotzen dituzte, entretenitu egiten dute, irribarrea piztu.

1. Erakunde sustatzaileak

Irungo Udala - Gizarte Ongizateko area
Adinekoentzako zerbitzua
Irungo udala-gizarte ongizatea-adinekoen zerbitzua

2. Erakunde mota

Publikoa

3. Xede taldea

Gutunak batez ere adineko pertsoneri zuzenduta daude, baina orokorrean herritar guztiak izan daitezke hartzaileak.

4. Lurralde eremua

Irun (Gipuzkoa)

5. Egoera

Abian jarrita

6. Etiketak

Bakardadea, COVID-19a, laguntasuna, Gipuzkoa

7. Helburuak

Laguntza gutunen helburua da adinekoei, batez ere, eta herritar guztiei, distantzia fisikoaren gainera laguntzea. Eta, gutunak idatziz eta jasoz, bakarrik sentitzen diren pertsonengandik eta, bereziki, adinekoengandik hurbil egon ahal izatea.

Laguntza hori hitzen eta istorioen bidez ematen da. Istorio horiek entretenitzen, besarkatzen edo irribarre bat sorrarazten duten pasadizo errealak edo asmatuak kontatzen dituzte, eta pertsona ezezagunak lotzen/harremanetan jartzen dituzte.

Irungo Udaleko Gizarte Ongizateko areak hurbiltze hori sustatu nahi du, eta, horretarako, adinekoei ez ezik udalerriko bizilagun guztiei ere helarazten dizkie gutunak, aukera izan dezaten idazlanok irakurri eta gozatzeko, irudimenaren bidez hormen gainera hegan egiteko. Hala, proiekturako idatzitako 47 gutunak Irungo Udalaren webgunean (www.irun.org) jarriko dira eskuragarri, idazleek guri helarazi ahal. Bertatik deskargatu daitezke, irakurtzeko eta inprimatzeko. Era berean, gutunak entzun ere egin daitezke, testuen boz gorako irakurketa grabatu egiten baita bat-bateko mezularitzako aplikazioen bidez bidali ahal izateko.

8. Metodologia

Itziar Sistiagak adin askotako idazle boluntarioen taldea osatu du. Aipatzekoa da laguntza gutunak talde horretako zenbait kidek idatzi dituztela, Sistiagak Irungo udal liburutegian (Carlos Blanco Aguinaga – CBA Kultur Gunean) eskaintzen dituen idazkuntza ikastaroetako partaideen laguntzarekin.

Adinekoentzako zerbitzuan laguntza gutun bat jasotzen da astero, eta adineko pertsoneri bidaltzen zaie etxera. Era berean, posta elektronikoz ere igortzen da gutuna Irungo gune sozialetara, eguneko zentroetara, egoitzetara eta adinekoen elkarteetara.

Gune sozial, eguneko zentro, egoitza eta elkarte horietan irakurgai izaten dituzte interesa duten erabiltzaileak. Gainera, audioak ere entzun ditzakete, asteko laguntza gutunarekin batera bidaltzen baitira.

Gutunak eta audioak Udalaren webgunean daude eskuragarri (www.irun.org). 33. gutuna da bidali den azkena.

9. Alderdi berritzaileak

Ekimen berritzailea da; izan ere, COVID-19aren pandemiaren garaian sortu zen, adineko pertsona batzuk bakarrik zeudela eta laguntasuna behar zutela ikusi zenean. Behar horretatik sortu zen laguntza gutunen proiektua, bakarrik zeuden adineko pertsonen laguntasuna eskaintzeko.

10. Ebaluazioa eta emaitzak

Laguntza gutunen bidez laguntasuna eskaintzen zaie pertsonen, bai idatziz eta bai ahoz ere, audioen kasuan. Gutun horiek jaso nahi ez dituzten pertsonen adinekoentzako zerbitzuarekin harremanetan jarri eta bidalketa etetea eska dezakete.

Proiektua osasun krisiaren garaian sortu zen, eta 2021ean berrekin zitzaion.

Ez da inongo ebaluazio metodorik erabili, baina adineko pertsonentzako gure zerbitzuan jasotzen ditugun deien arabera, ekimenaren eragina «positiboa» izaten ari da Irungo udalerrian.